| TURISMO ETA MERKATARITZA BATZORDEA | COMISIÓN DE TURISMO Y COMERCIO |
|---|---|
| **DATA: 2012-06-04** | **FECHA: 04-06-2012** |
| **ORDUA**: 16:00<br>**BUKAERA ORDUA**: 18:30<br>**LEKUA**: UDALETXEKO BILERA ARETOA | **HORA DE INICIO**: 16:00<br>**HORA DE FINALIZACIÓN**: 18:30<br>**LUGAR**: SALA DE REUNIONES DEL AYUNTAMIENTO |
| **BERTARATUTAKOAK**:<br>√ Maite Iturre (NABAI)<br>√ Garbiñe Elizegi (Bildu)<br>√ Isabel Olave (UPN)<br>√ Mª Carmen Iribarren (UPN)<br>√ Izaskun Abril (Cederna-Garalur)<br>√ Izaskun Goñi (Bertizko Partzuergoa)<br>√ Mª Jose Iparragirre (Hiruak Bat)<br>√ Pello Iriarte<br>√ Mattari Alzuarte<br>√ Agustín Larratxea<br>√ Angel Viela<br>√ Carlos Irisarri | **ASISTENTES**:<br>√ Maite Iturre (NABAI)<br>√ Garbiñe Elizegi (Bildu)<br>√ Isabel Olave (UPN)<br>√ Mª Carmen Iribarren (UPN)<br>√ Izaskun Abril (Cederna-Garalur)<br>√ Izaskun Goñi (Consorcio de Bertiz)<br>√ Mª Jose Iparragirre (Hiruak Bat)<br>√ Pello Iriarte<br>√ Mattari Alzuarte<br>√ Agustín Larratxea<br>√ Angel Viela<br>√ Carlos Irisarri |
| **GAI-ZERRENDA**:<br>**1. Kale izendegia:**<br>Maite Iturre azkeneko zirriborroak aurkezten ditu eta aipatzen ditu eginiko aldaketak. Aipatzen du ere, hurrengo baterako bertze modu batean egin daiteke eta, hala bada, Udalak jabegoa erregistratzerik izango duen. | **ORDEN DEL DÍA**:<br>**1. Callejero:**<br>Maite Iturre presenta los últimos borradores y comenta los cambios introducidos. Señala también que en el caso de que se reedite habrá que valorar los cambios a introducir e informarme acerca de si el Ayuntamiento puede registrar la propiedad del documento. |
| -**proposatzen da:** aurrera segitzea, baina posible bada hurrengorako oinarri hobetu eta informazio turistikoa indartu. | **-se propone:** seguir adelante, pero si se vuelve a editar mejorar la base y destacar más la información turística. |
| **2. Seinalizazioa**<br>Maite Iturre aipatzen dut Floretino Goñirekin egon zela aurrekontu bat lantzeko eta horrenbestez, turismo bulegoa hobeto seinalizatzeko aurrekontuak eskatuko dira.<br>Bestalde aipatzen du ere Nafarroako Gobernuko Zerbitzuarekin solas egin zuela eta aipatu diote sahiesbide berria dela eta Iruritako seinalizazioa hobetuko dutela baina horretarako egon behar dute Errepide Sailarekin. Bestalde Museorako totem bat eskatu da baina ez dute erantzunik eman. | **2. Señalización.**<br>Maite comenta que se reunió con Florentino Goñi para preparar un presupuesto para mejorar la señalización de la oficina de turismo y que él pedirá a su vez un presupuesto a empresas del sector.<br>Por otro lado comenta que habló con el Servicio de Turismo del Gobierno de Navarra y le comentaron con motivo de la apertura de la variante van a mejorar la señalización de Irurita y que para ello deben obtener la autorización del Servicio de Carreteras. También indica que ha solicitado un totem para el Museo pero |

que de momento no ha obtenido respuesta.

3. **Turismo Bulegoa.**

Garbiñek dio bere egunean Baztango Udalak muga bat jarri zuela Bertizko Partzuergo Turistikoa finantzateko kuotan eta, horrenbestez, Partzuergoak eskatu egin zuen 6.000 € ekarpena gehitzean Baztango Turismo Bulegoa kudeatzearen alde. Orain Partzuergoak proposamena egin du eta Maite Iturrek aztertu egin du. Maitek proposatzen du haunditzea uztailan arratsaldez ireki behar den egun kopurua eta ordutegiaren egokitzapena, Museoko langilearen ordutegia osatuz, arratsaldeetan ordu gehiago zabaltzeko. Hori dela eta Partzuergoko langileak Museoko langilearen eginkizunak bete beharko ditu bakarrik dagoenean.

Izaskun Goñik aipatzen dut lehen Baztango Udalaren ekarpena Partzuergora 38.000 € ingurukoa zela, baina 2012rako 25.000 €ko muga ezarri egin zen, nahiz eta ondotik 6.000 €ko ekarpena gehitu.

Garbiñek azaltzen du 5 urtez Partzuergoko aurrekontuak osatu egin direla 2 kuota mota kontuan hartuz: bat arrunta eta beste bat ez ohikoa Partzuergotik alde egin zuten Udalek sortutako defizita estaltzeko; egokiagoa izango litzateke aurrerantzean kalkuluak egitean momentuan dauden bazkideen arabera.

Isabel Olavek galdetzen du ea Turismo Bulegoaren kokapenari buruzko hausnarketarik egin den, UPN oso bilkuran egin zuen mozioa kontutan hartuz. Erantzuten zaio martxoko batzordean aipatu egin zela gaia baina momentuan ez dagoela bertze aukerarik eta, horregatik proposatu egin zela seinalizazioa hobetzea.

**-proposatzen da:** uztailean eta abuztuan ordutegiak egokitzea ahalik eta zerbitzurik zabalena eskaintzeko.

3. **Oficina de Turismo.**

Garbiñe señala que el Ayuntamiento de Baztan planteó un límite en su aportación al Consorcio Turístico de Bertiz, pero que desde la entidad se negoció para que incrementara su aportación en 6.000 € a cambio de que en verano una trabajadora del Consorcio prestara servicio en la oficina de turismo de Baztan. El Consorcio ha realizado un planteamiento en este sentido, que ha sido analizado por Maite Iturre. Así Maite plantea que se incremento el número de tardes de apertura en julio y que se amplíe el horario de verano, complementando los horarios de la persona que trabaja en el Museo. Esto hace que la trabajadora del Consorcio desarrolle las labores de atención propias de la trabajadora del Museo.

Izaskun Goñi señala en este punto que anteriormente la aportación del Ayuntamiento al Consorcio era aproximadamente de 38.000 € pero que para 2012 se planteó un límite de 25.000 €, por lo que se negoció la aportación complementaria de 6.000 €

Garbiñe añade que durante 5 años se han confeccionado en el Consorcio unos presupuestos en el que se incluían dos tipos de cuota, una ordinaria y otra para cubrir el déficit generado por los ayuntamientos que abandonaros el Consorcio, pero sería más oportuno que en adelante se hiciera un cálculo en base a los asociados.

Isabel Olave pregunta si se ha tratado el tema de la ubicación de la OIT, en los términos que se recogía en la moción presentada por UPN en el pleno. Se responde que se trató en la comisión de marzo pero que hoy no existe un emplazamiento idóneo por lo que se va a intentar mejorar la señalización .

**-se propone:** fijar unos horarios que permiten ofrecer un servicio amplio durante los meses de julio y agosto.

4. **Salmentan ibiltaria.**

Maite Iturrek azaltzen du Udalak jaso egin duela Foru Plazan izozkiak saltzeko postu ibiltari bat jartzeko eskaera. Aipatzen du ere Baztango Udalak ez duela ordenantza propiorik eta, horrenbestez, Osasun

4. **Venta ambulante:**

Maite Iturre comenta que en el Ayuntamiento se ha recibido una solicitud para ubicar un puesto de venta de helados en la Plaza de los Fueros. Indica que el Ayuntamiento no dispone de una

Sailarekin harremanetan jarri zela; bertako teknikariek estatu mailako zein Europa mailako arautegia bidali zioten (erakusten duena). Idazkariak ere gaia aztertzen ari da eta Tokiko Gobernu Batzordeak erabaikia hartuko du. Zein ote den kokapenarik hoberena inguruko eztabaida ematen da eta, ondorioz, eskatzen da onartzen dena gero betearaztea.

**-proposatzen da:** ordenantza bat garatzea eta kasu guztietan ezarritako baldintzan betetzea (txurroak saltzeko jartzen den postua aipatzen da); izozkiak saltzeko postua baimentzen bada, eremua finkatzea eta tasa bat jarriko balitz Elizondoko herriari zati bat ordaintzea.

ordenanza propia, por lo que se puso en contacto con Instituto de Salud Pública que le remitieron a la normativa estatal y comunitaria. El Secretario también está estudiando el caso y se resolverá en Junta de Gobierno Local. Se produce un debate en relación sobre la ubicación del puesto y se pide que se vigile que cumpla lo que se autorice.

**-se propone:** desarrollar una ordenanza y vigilar para que se cumpla en todos los casos (se cita el caso de la churrería); en el caso de que se autorice la actividad de venta de helados definir el ámbito y si se fija una tasa, abonar una parte al pueblo de Elizondo.

5. **Autokarabanen gunea.**

Angel Vielak dio ez duela egokia ikuste bere proiektua aurkeztea eta gainera udan gaudenez ez dagoela aukerartik ezer egiteko; etorkizuna begira prest dagoela zerbait lantzako.

Garbiñe Elizegik aipatzen du lehenik aztertuz beharko dela zer proiektu mota garatzerik dugun, proiektu publikoa ala pribatua.

Maite Iturrek azaltzen du informazio biltzen aritu dela eta, aldi berean, Jon Elizetxe zinegotziarekin batera kokapen desberdinak aurreikusten. Horrenbestez erraten du Otsondoko eremuan maiz autokarabanak ikusten direla eta, horregatik, udal arkitektoarekin egonen dela eremua horretan zerbait egiterik dagoen. Bestalde Xabier Ospitalekin eta Xabier Torresekin solas egin zuen bai Erratzun bai Elizondon kokapen desperdinak hautatzeko.

**-proposatzen da:** lanean segitzea interesgarritzat jotzen baita planteamendua.

5. **Área de caravanas.**

Angel Viela comenta que no considera oportuno presentar su proyecto y señala además que estamos ya en verano por lo que no hay capacidad para hacer nada por lo que habría que plantearlo como algo a futuro.

Garbiñe Elizegi dice que habrá que estudiar en primera lugar la naturaleza del proyecto, si puede ser un proyecto público o privado.

Maite Iturre comenta que ha seguido recabando información y ha estudiado posibles ubicaciones en terreno comunal con Jon Elizetxe. Han visto que en el área de Otsondo es habitual ver caravanas por lo que estará con la arquitecta municipal para valorar la posibilidad de acondicionar un área de caravanas. Por otro lado también habló con Xabier Ospital y Xabier Torres para ver diferentes ubicaciones en Erratzu y Elizondo.

**-se propone:** seguir trabajando en la cuestión puesto que se considera de interés.

6. **Xorroxin ibilbidea.**

Maite Iturrek deskribatzen du ibilbidearen egoera eta egin beharreko lanak: zaborra bildu, larreak moztu, kisulabea garbitu… Neguan egin beharreko lanak dira eta Udalatik kudeatuko dira.

6. **Sendero a Xorroxin.**

Maite Iturre describe la situación en que se encuentra el sendero de Xorroxin, así como las labores que habría que desarrollar para su mantenimiento: recoger la basura, cortar las zarzas, limpiar el kisulabe… Se trata de trabajos que se harán en invierno y que se gestionarán desde el Ayuntamiento.

7. **Bertizko Partzuergoari buruzko informazioa.**

Se informa del proceso de reflexión que se están desarrollando en el Consorcio Turístico de Beriz. Se informará acerca de las conclusiones

7. **Información relativa al Consorcio Turístico de Bertiz.**

Bertizko Partzuergoan udan egin beharreko hausnarketaren prozesuan berri ematen da. Aipatzen da bukatzerakoan ondoriak azalduko direla.

| | |
|---|---|
| cuando termine el proceso. | |
| **8. Galde-eskeak** | **8. Ruegos y preguntas** |
| HURRENGO BILERA: ez da datarik finkatu. | PRÓXIMA REUNIÓN: no se ha fijado una fecha. |